

Donostian, bildu dira: Etxaide, buru, Mitxelena, Lekuona, Irigaray, Gorostiaga, Arrue ta Oleaga euskaltzaiñak, eta Anai Berriotxoa, , Irigoyen, Etxaniz ta Alvarez Empananza urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Oleaga-k diño Aita Villasante-k ezin etorria adierazo deutsola.

Leengo agiria irakurri da eta onetsia izan da.

Oleaga-k diño Bizkaiko Diputaziñoari iztegia dala-ta egin jakola eskabidea eta aren erantzuna irakurri da esaten dauela zelan urrengo presupuestoan zati bat orretarako finkatuko daben oso pozik. Bizkaiko kultura batzarrari bere egin jako eskabidea.

Irigoyen-ek adierazoten dau egun batzuk direala Durango-ko Santa Ana elexan parroku dagoen Jose Etxeandia jaunagaz berba egin dauela eta euskerazko ikastaro bat ifintekoa dala bertako eskolan. Zorionak emon bekioz Etxeandia jaunari eta esan bekio Euskaltzaindia prest dagoela aal dauen laguntasun guztia emoteko.

Donostian egitekoa zan izkuntzalarien batzar nagusia azkenez aurtan egingo eztan ezkeru Irigoyen-ek adierazoten dau aurtan bere igaz legez utsunea geldituten dala eta zelanbait betetako gauza txikiago bat egin bear litzakeala, orain urte bi Arantzazun egin zan antzekoa, eta tokia Bilbo izan leitekeala, zemendi inguruan adibidez. Diño Bizkaiko Diputaziñoako Bibliotekako saloia lortzea ere ustez elitzakeala gatxa izango. Gaia: lexikografia, lexikologia eta euskerazko literatura mueten legerik nagusienak izan leiteke. Beste lan batzuek bere onartu leitez Euskaltzaindiak ondo baderitzo. Datorren batzarrerako ekarri beiz zeaztasun guztiak eta asko komeni litzake berba egingo dabenak laburpen bat bialdu daien, aurretik jakiteko gaiak eta eretxiak eta maipuruak bear dan moduan zuzendu aal izan batzarra.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.